

CANONIGOS REGULARES DE LETRAN

TELEFONO 78230

OÑATE (GIPUZCOA)

1961gaten Ufiak 13

A.Lafitte kalonjeari, agur.

Agur t'erdi dagizu "HERRIA"-ren irakurle zintzo onek Oñati'ko Laterandar Araudunen Kalonjetxetik, Gipuzkoan.

Alper-itzak aldera utzirik, gaiari lotuko natzaio lenbailen. Lehenik.- HERRIA-ri zor diogun aurtengo arpidea ordaindu gabe dugu oraindikan. Beti ordaintzeko bainan nioiz ordaindu. Barka.

Joan gaituzu idazketxera, ta, irdetsi digute zailtxo dela atzerirat dirua igortzea, ta, nai ezkerotz, anitz paper ta baimen bear ditugula. Orregaitik pentsatu dugu bertze era batera konpondu.

Ara emen: Gura al duzu, apez agurgarri orrek, mezekin ordain dezagun HERRIA-aren arpidea? Urteko arpideak 16NF balio ditu. Beraz, igor iguzu balio ori mezetan eta guk emen emainen ditugu. Konforme al zaude?

Bigarren.- Orainarteko HERRIA, ots, S.Urkia'ren izenean Oñati'ra bialtzen duzuen, arren, igor zazue gaugero bertze zuzenbide on-tarat: Aita Eusebio Osa- Canónigos Regulares- Haro- (Rioja)- Es-paña. Mila esker.

Eta bukatzeko, ene gogorik gartsuena agertzen dizut aurrera jarrai dezazun Euskera ta Euskualerriaren alde. Zorionak, biotzez.

Anitzek irakurtzen dugu HERRIA panpox ori, ta, naski, geiagok irakurriko lukete ortographia gaitik ez balitz. Ezin alda dite-ke?

Besterik gabe, eskatzen diot Jainkoari osasuna kontserba dizai-zula lanerako. Emen nuzu zure erantzun xamurraren zain zure

sarbitzari

A. Lafitte
J. Oñate
Laf.

agur.